

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### KULTURA ETA KIROL SAILA

**30/2022 Foru Agindua, otsailaren 16koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen kultura ondare higiezina kontserbatu eta/edo zaharberritzeko partikularrek sustatutako esku hartzeetarako dirulaguntzetarako deialdia**

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak, kultura sektorearen ekonomia suspertzeko egiten ari den ekintzen artean, egokitzat jo du dirulaguntzen deialdi hau egitea norgehiagoka bidez, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen partikularrek sustatutako kultura ondare higiezina kontserbatzeko eta/edo zaharberritzeko esku hartzeak sustatzeko.

Esku hartze horiek lege hauek xedatutakoaren arabera egingo dira: Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legea, Gaztela eta Leongo Kultura Ondarearen uztailaren 11ko 12/2002 Legea, 12/2002 Legea aldatzen duen abenduaren 22ko 8/2004 Legea eta Ondare Urbanizatu eta Eraikia Birgaitzeko Jarduera Babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretua.

Horretarako, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileen esparruan, eta ahalik eta zabalkunderik handiena emateko eta publikotasun, lehia eta objektibotasun printzipioen eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren berri emateko, foru agindu honen bidez ezartzen dira deialdiak bete behar dituen baldintzak.

Trebiñuko enklabeen egiten diren esku-hartzeak jasota daude Burgosko Diputazio Probintzialarekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmenean (Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 20ko 454/2021 Erabakiaren bidez onetsita), zeinaren bidez garatzen baita, historia eta arte ondasun babestuek kontserbatu, mantendu eta zaharberritzearen arloan, Trebiñuko enklabeari buruzko esparru akordioa.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespina ematea partikularrek Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen sustatu beharreko kultura ondare higiezina kontserbatu eta/edo zaharberritzeko esku hartzeak egiteko dirulaguntzetarako 2022ko ekitaldirako deialdiari; foru agindu honen I. eranskinean jasotzen dena.

Bigarrena. Onestea deialdiko eskaera orria, zeina foru agindu honen II. eranskina baita.

Hirugarrena. Deialdi hori erregulatzen da Kultura eta Kirol Sailaren norgehiagoka bidezko dirulaguntzen oinarri orokor arauemaileen arabera (Foru Gobernu Kontseiluaren 50/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa, 2019ko azaroaren 20ko 134. ALHAOn argitaratua, martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuaren bidez aldatua), Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan xedatutakoaren arabera eta ebazpen honi atxikitako I. eranskinak ezarritakoaren arabera.

Laugarrena. Ebazpen honen bidez araututako dirulaguntzak aurrekontu partida honen kultura ordainduko dira: Arabako Foru Aldundiaren 2022ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko 70109. G/336702/78000700 "Partikularrek ondarea kontserbatzeko inbertsioak sustatzea" partida, 135.000 eurokoa, 105.569 zorpekin erreferentzia.

Bosgarrena. Organo eskudunak, balioespen batzordeak proposatuta, eman beharreko ebazpenak emango ditu gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Seigarrena. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei banan-banan, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. artikuluan arautzen duenarekin.

Zazpigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Zortzigarrena. Foru agindu honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke horren aurka erabakia eman duen organoaren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua xedatutakoaren arabera, hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 16a

*Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua*  
*ANA M. DEL VAL SANCHO*

*Kultura zuzendaria*  
*M<sup>a</sup> INMACULADA SÁNCHEZ ARBE*

## I. ERANSKINA

### DIRULAGUNTZETARAKO DEIALDIA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN ETA TREBIÑUKO ENKLABEAN KULTURA ONDARE HIGIEZINA KONTSERBATU ETA/EDO ZAHARBERRITZEKO PARTIKULARREK SUSTATUTAKO ESKU HARTZEETARAKO

#### 1. artikulua. Deialdiaren xedea

Deialdiaren xedea da esku hartzeak sustatzea Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen 2022ko ekitaldian zehar kultura ondare higiezia kontserbatu eta/edo zaharberritzeko partikularrek sustatuta, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuak xedatutakoaren esparruan, zeinaren bidez onetsi baitziren Kultura eta Kirol Sailak norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak.

Jardun horiek lege hauek xedatutakoaren arabera egingo dira: Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legea, Gaztela eta Leongo Kultura Ondarearen uztailaren 11ko 12/2002 Legea, 12/2002 Legea aldatzen duen abenduaren 22ko 8/2004 Legea eta Ondare Urbanizatu eta Eraikia Birgaitzeko Jarduera Babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretua.

Trebiñuko enklabeen egiten diren esku-hartzeak jasota daude Burgosko Diputazio Probintzialarekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmenean (Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 20ko 454/2021 Erabakiaren bidez onetsita), zeinaren bidez garatzen baita, historia eta arte ondasun babestuek kontserbatu, mantendu eta zaharberritzearen arloan, Trebiñuko enklabeari buruzko esparru akordioa.

#### 2. artikulua. Emateko prozedura

Dirulaguntza hauek norgehiagoka bidez emango dira.

#### 3. artikulua. Aurrekontu egozpena

Dirulaguntzen zenbateko osoak ezingo du inola ere gainditu helburu horretarako jarri den zenbatekoa, hau da, 135.000,00 euro. Arabako Foru Aldundiaren 2022ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko 70109. G/336702/78000700 "Partikularrek ondarea kontserbatzeko inbertsioak sustatzea" partidari egotziko zaio zenbateko hori.

#### 4. artikulua. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa

Esleitu beharreko dirulaguntza bakoitzaren kopurua izango da 11. artikuluan horretarako ezarritako ehunekoen aplikaziotik ateratzen dena, eta, edonola ere, ez du inola gaindituko 30.000,00 euroko kopurua eskatzaile bakoitzeko. Kultura eta Kirol Sailaren ekarpena ez da inbertsioa egin ondoren guztira izan den kostuaren ehuneko 80 baino handiagoa izango.

Arabako Foru Aldundiak, konplexutasun tekniko bereziarengatik nahiz historia eta arkitektura balioagatik gomendagarria denean, dagozkion proiektuak idatzi ahal izango ditu, edo obren zuzendaritzan parte hartu, bere zerbitzu teknikoaren bitartez.

#### 5. artikulua. Onuradunak eta betekizunak

1. Deialdi honetan araututako dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte esku hartzearen xede den kultura ondasun higiezinaren jabe diren pertsona fisikoek, baldin eta ez badaude Diputatuaren Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren klausulan jasotako egoeretan (dekretu horrek onetsi zituen Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko oinarri orokorrak).

2. Deialdi honen arabera dirulaguntza jaso dezaketen esku-hartzeak jabeakidetzaren araubideko ondasunetan egiten badira, jabeakide bakoitzak banaka izapidetuko du eskaera. Kasu horretan, aurkeztutako eskabide bakoitzarekin batera gainerako jabeakideen esku-hartzearekiko baimena edo adostasuna aurkeztu beharko da, eta, gainera, dagokion partaidetzaren ehuneko adierazi beharko da.

3. Deialdi honen arabera dirulaguntza jaso dezaketen esku-hartzeak jabetza horizontaleko araubidean sartuta dauden ondasunetan egiten badira, jabe bakoitzak banaka izapidetuko du eskaera. Kasu horretan, eskaera bakoitzarekin batera, esku-hartzea baimentzen duen jabeen erkidegoaren erabakia aurkeztu beharko da, eta, kasu bakoitzean, eskatzaileak higiezinan duen partaidetzaren ehunekoa adierazi beharko da.

4. Eskatutako betekizunak eskaeraren egunean eduki beharko dira, eta prozedura izapidetzen den bitartean eta hura ebatzi arte eutsi beharko zaie.

5. Eskatzaile guztiek aurreikusita izan behar dute 2022an gauzatzea dirulaguntza emateko oinarri den esku hartzea. Horretarako, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean aipatutako alde aurreko baimena lortu dutela egiaztatu beharko dute, bai eta esku hartze horrek eskatzen dituen beste lizentzia eta baimen batzuk lortu dituztela ere.

#### **6. artikulua. Diruz lagun daitezkeen inbertsioak**

1. Jarduketa hauek lagundu ahalko dira diruz:

a) Kontserbatzeko eta zaharberritzeko esku hartzeak gauzatzeko eta artikuluko honen 2. puntuan jasotako ondasun higiezinak dokumentatzeko beharrezkoak diren proiektuak, azterlanak, inbentarioak, txostenak, EIT eta abar, 2022an zehar egiten badira.

b) Artikulu honen 2. puntuan jasotako ondasun higiezinak kontserbatzeko eta/edo zaharberritzeko esku hartzeak, baldin eta apartatu honetako aurreko letran jasotako proiektu, azterlan eta txostenen arabera badira, edo onuradunek Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren irizpideei jarraiki 2022an zehar egindakoetan oinarrituta.

2. Ondasun higiezin horiek egoera hauetakoren batean egon behar dute:

a) Monumentu edo babes bereziko ondasun, ertain edo oinarrizko izendatu izana, edo horiek babesteko adierazpen espediente hasi izana, Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legean edo Gaztela eta Leongo Kultura Ondareari buruzko uztailaren 11ko 12/2002 Legean, eta 12/2002 Legea aldatzen duen abenduaren 22ko 8/2004 Legean aurreikusitakoarekin bat etorritik.

b) Udal planeamenduak edo planeamendu sektorial kulturak katalogatuak izatea.

c) Sartuta egotea katalogatzeko proposamenen batean, garrantzizko historia eta arkitektura multzoren batean edo Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak edo Gaztela eta Leongo Juntak egindako inbentarioren batean.

3. Deialdi honen aplikazio eremutik kanpo geratuko dira artikuluko honen 1. eta 2. apartatuetan jasotako kasuetan jaso gabeko esku hartzeak, ondasun historiko-artistiko higigarriak kontserbatzeko eta/edo zaharberritzeko esku hartzeak, eta Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 67. artikuluan jasotako esku hartze arkeologikoak.

4. Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko da diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten diona, guztiz beharrezkoa dena eta ezarritako epean egiten dena, gastu lagungarrien kostua ezin dela inola ere izan merkatuaren balioa baino handiagoa.

5. Deialdi honen helburua izango da eskatzaileen ekintza babestea eta osatzea, eta ez jarduera gauzatzearen ondoriozko gastu guztiak finantzatzea.

#### **7. artikulua. Eskaerak aurkeztea**

1. Eskabideak Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari zuzenduko zaizkio eta honela aurkeztu ahal izango dira:

a) Bide elektronikoz, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://e-s.araba.eus>) eskura dagoen eskabidea betez. Horretarako, eskatzaileek sartzeko ziurtagiri digitala izan beharko dute alde aurretik. Egoitza elektronikoa sartzeko moduei buruzko informazioa, bai eta erakunde ziurtatzaile batek emandako ziurtagiri elektronikoa eskatzeko nora jo ere, atal honetan dago: ezagutu egoitza – nola sartu.

b) Bertaratuta, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, behe) edo Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako beste modu batean. Azken kasu horretan, eskabideak II. eranskineko eredu ofizialean beteta aurkeztu beharko dira.

2. Eskatzaileek emandako datuak Arabako Foru Aldundiak tratatuko ditu, eta "ondare historiko arkitektonikoaren" tratamenduetan sartuko dira, Arabako Ondare Historiko Arkitektonikoko kultura ondasunak babesteko, zabaltzeko eta sustatzeko beharrezkoak diren administrazio izapideak eta jarduerak kudeatzeko helburuarekin, bai eta komunikazio ekintzak egiteko ere. Datu pertsonalen tratamendua abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa) eta 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) ezarritakoaren arabera egingo da.

3. Kultura eta Kirol Sailak egiaztatuko du eskatzaileak Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin betebeharrak egunean izateko baldintzak betetzen dituela, salbu eta pertsona horrek horren aurka egiten bada; kasu horretan, egitate hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen bezala (abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoak, aldatua, azken xedapenetatik hamabigarrenean). Arabako Lurralde Historikotik kanpo erroldatutako eskatzaileek dagokion Ogasunaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

#### **8. artikulua. Aurkezteko epea**

Eskaerak aurkezteko hogeita hamar eguneko epea egongo da deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

#### **9. artikulua. Eskaerarekin batera aurkeztu beharrezko agiriak**

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) NANaren kopia, eskabidea elektronikoki aurkeztu ez bada.

b) Ordezkaritza Zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatzea, interesdunak legezko edo borondatezko ordezkararen bidez jarduten duenean.

c) Arabako Lurralde Historikotik kanpo erroldatutako eskatzaileek dagokion Ogasunaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, egiaztatzeko egunean dituztela zerga betebeharrak.

d) Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurreko azken hiru urteetan emandako ondasun higiezinaren ohar soila edo jabetza erregistroaren ziurtagiria, zeinari baitagokio dirulaguntza gai den esku hartzea.

e) Gainerako jabeakideen esku-hartzearekiko adostasun edo baimen agiria, eskatzailea esku-hartzearen gai den ondasunaren titularra bada jabeakidetzara araubidean.

f) Esku hartzea baimentzen duen jabeen erkidegoaren erabakia, esku hartzeak jabetza horizontaleko araubidean sartutako ondasunen gainekoak badira.

g) Esku hartzearen xedea azaltzen duen agiria. Bertan, honako hauek agertuko dira:

– Proiektuen, azterlanen, inbentarioen, txostenen, EITen eta abarren kasuan: dagokion dokumentu teknikoak idaztea komeni dela azaltzen duen memoria.

– Kontserbatzeko eta zaharberritzeko esku hartzearen kasuan: esku hartzearen proiektu teknikoak edo, hala badagokio, aurrekontu zehatza eta txostena, gaitutako teknikariak izenpetua, nahikoa den informazio grafiko eta idatziak osatua.

h) Egindako esku hartzearen arabera eska daitezkeen betekizunak: proiektuak, azterlanak, txostenak, EITak eta abar idazteko ordainsarien aurrekontua, eta obra zuzendaritzako (arkitektoa), exekuzio materialaren zuzendaritzako (arkitekto teknikoak) eta segurtasun eta osasun koordinazio (arkitektoa edo arkitekto teknikoak) ordainsarien aurrekontua.

i) Baimenak, lizentziak eta lizentzien luzapenak lortu izanaren egiaztagiria, iraungita egon daitezkeenean, eta esku hartzea egiteko beharrezko baimenak, ondasun higiezinak kontserbatzeko eta/edo zaharberritzeko esku hartzeen kasuan.

j) Deialdi honen 11. artikuluan adierazitako balioespen irizpideak justifikatzen dituen dokumentazioa, hau da, ondasunaren esku hartzearen urgentziari, balio historiko-arkitektonikoari eta ondasunaren esanahi eta interes kulturalari buruzko dokumentazioa.

#### 10. artikulua. Eskaerak zuzendu edo hobetzea

1. Eskaerak osorik bete ezean edo foru agindu honetan eskatutako agiriren bat falta izanez gero, interesdunari eskatuko zaio falta diren datuak eta agiriak aurkezteko hamar (10) egun baliaduneko epean. Era berean, jakinaraziko zaio horrela egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, eta, beraz, eskaera artxibatu egingo dela, kasuan kasuko ebazpena eman ondoren.

2. Nolanahi ere, Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko behar dituen informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

#### 11. artikulua. Prozeduraren instrukzioa eta balioespen irizpideak

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua izango da prozeduraren instrukzioa egiteko organo eskuduna.

2. Diruz lagun daitezkeen aurrekontuak: eskabideetan aurkeztutako aurrekontuak Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak aztertu eta banakatuko ditu, diruz lagun daitezkeen aurrekontua lortzeko. Bertan, deialdiaren xedearekin bat datozen jardueretara zuzenean bideratzen diren obren atalak jasoko dira. Hark, aldez aurreko azterlanen, proiektuen eta/edo esku hartzeen batura jaso ahal izango du. Esku hartzearen guztizko aurrekontu diruz lagungarriaren kontzeptuak barne hartu ahal izango ditu aldez aurreko azterlanen ordainsariak, proiektuarenak, zuzendaritza teknikoarenak, betearazpen materialaren zuzendaritzarenak eta segurtasun eta osasun koordinazioarenak. Halaber, partida ez egokiak baztertu edo, hala badagokio, murriztu ahal izango dira, baita gainbaloratutako neurketak edo aurrekontuak ere.

3. Proposatutako esku hartzeen balorazioa honako irizpide hauek kontuan izanda egingo da:

a) Esku hartzearen premia: 25 puntu.

b) Historia eta arkitektura balioa: 20 puntu.

Puntuazio hori zehazteko, kontuan hartuko dira zenbait alderdi, hala nola babes bereziko edo ertaineko monumentu adierazpena; udal edo sektore planeamenduaren babes katalogoetara sartu izana; Arabako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren edo Gaztela eta Leongo Juntaren katalogazio proposamenen batean bildu izana; garrantzizko arkitektura multzo batekoa izatea; eta eraikina Arabako Foru Aldundiak edo Gaztela eta Leongo Juntak egindako inbentarioren batean bildu izana.

c) Kultura aldetik duen esanahia eta interesa: 20 puntu.

Puntuazio hori zehazteko, kontuan hartuko dira hainbat alderdi, hala nola interes etnografikoa, turismo interesa, paisaia interesa eta beste erabilera batzuetarako gizarte interesa; baita haiek lurralde proposamen estrategikoetan eta proposamen estrategiko orokorretan sartzea ere (ibilbideak oro har, kultura ibilbideak, Agenda 21, kuadrilletako proiektu estrategikoak...).

d) Jarraitasuna izatea urte aniztetzarako planifikatutako lanetan: 25 puntu.

Aurretik diruz lagundutako aldez aurretiko azterlanetan, aurreproiektuetan edo proiektuetan oinarritutako lanak, baldin eta Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak finkatutako monumentuak zaharberritzeko irizpideen arabera landu badira	9 puntu
Aurreko faseen jarraipen diren obrak	9 puntu
2021ean eskatutako proiektu edo obrak, bere garaian dirulaguntzarik jaso ez zutenak aurrekontu baliabide ezagatik	7 puntu

Esku-hartzeek azpi irizpide bat, bi edo hirurak bete ahal izango dituzte; horrela, puntuak batuko dira puntuazio osorako.

e) Aurkeztutako proiektuaren edo memoria teknikoaren kalitatea: 10 puntu.

Puntuazio hori zehazteko, kontuan hartuko dira dokumentazio teknikoaren kalitatea; proiektua edo memoria zenbatean egokitzen zaion proposatutako esku hartzeari; metodologia, baliabide teknikoak eta materialak egokiak diren, eta hori guztia proposatutako zaharberritzea kultura ondasun higiezinari balioa emateari begira egin dadin, bat etorri aplikatzekoak diren arauekin eta Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak emandako zaharberritze jarraibide eta irizpideekin.

Jarduketa bakoitzean, aurreko irizpideetako puntuazioak batuko dira, eta batura horren emaitza hartuko da kontuan. Horrela lortutako kopuruari zuzenean proportzionala den ehuneko esleituko zaio, eta eman ahal den gehieneko dirulaguntza, hots, ehuneko 80, emango zaion lortutako emaitzarik handienari (81-100). Goitik beherako hurrenkeran, kasu bakoitzean proportzionalki aplikatzen dira ehunekoak, era honetan:

81-100	ehuneko 80
71 - 80	ehuneko 72
61 - 70	ehuneko 68
51-60	ehuneko 64
50 edo gutxiago	ehuneko 60

Hala lortutako ehunekoa diruz lagundu daitekeen aurrekontuari aplikatuko zaio kasu bakoitzean; horrela kalkulatu da "proposatutako dirulaguntza"; hau da, jardun bakoitzari dagokion laguntza teorikoa, eta ezarritako balioespena egin ondoren sortzen den lehentasun ordenaren arabera egingo da, eta balioespen handiena duten eskaerei emango zaie lehentasuna, laguntza hauen deialdiaren zenbateko osoa osatu arte.

Berdinketarik izanez gero, lehentasuna izango du d), a), b) c) eta e) ataletan puntuaziorik handiena lortu duenak, hurrenkera horretan aplikatuta, harik eta aurrekontu esleipena agortu arte.

4. Eskaera bat baino gehiago dagoen higiezin berean egindako esku hartzeen kasuan (jabetza horizontalaren edo jabekidetzaren araubidetik eratorria), horiei guztiei erantzuteko behar besteko aurrekontu esleipenik ez badago, eskabide horien artean hainbanatuko da.

5. Gerakinik, ezeztatzerik edo uko egiterik izanez gero, zenbatekoak deialdian aintzat hartutako eskaeren obra, proiektu eta azterlan osagarrietarako bideratu ahal izango dira; horretarako, txosten teknikoan justifikatu beharko da zenbatekoak handitu behar direla, gertatutako gorabehera eta ustekabeak kontuan izanda. Gehikuntza horiek beharrezkoak ez badira, norgehiagokaz egindako proposameneko zerrendan deialdian lehenago aintzat hartu ez den hurrengo eskabidera bideratu ahal izango dira, betiere ekonomia aldetik bideragarria bada.

## 12. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

1. Balorazio Batzorde batek aztertuko ditu eskabideak. Batzorde horrek kontuan hartuko du otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, bere 3.7 artikuluan ezarritakoa. Hortaz, honako kide hauek izango ditu:

– Batzordeburua: Kultura zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona.

– Batzordekideak: Kultura Zuzendaritzak izendatutako hiru pertsona, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko langileen artetik aukeratuak (Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua eta Zaharberrikuntza Zerbitzua).

– Idazkaria: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuko teknikari bat, hizpidea izango duena baina botorik ez.

2. Balorazio Batzordeak, dirulaguntza emateko/ukatzeko proposamenekin batera, txosten bat egingo du, non jasoko baita onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten eskabide guztien zerrenda ordenatua. Zerrenda hori erabiliko da onuradunek emandako laguntzari uko egiten badiote edo laguntza onartzen ez badute.

3. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

4. Organo eskudunak bidezko ebazpena emango du, balorazio batzordeak proposatuta, gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

5. Esleipen ebazpenean zer eskatzaileari eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berriaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

6. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43. Artikulua xedatutakoari jarraiki.

7. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari eta haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke ebazpena eman duen organoaren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua xedatutakoaren arabera, hilabeteko epean hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean, aipatutako ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

### **13. artikulua. Emandako laguntza onartzea**

Baldin eta laguntza eman izana argitaratzen denetik hilabete igaro ostean onuradunak berriaz eta idatziz uko egiten ez badio, hura onartutzat joko da.

Esleipen prozeduran, onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten badio, dirulaguntza ematen duen organoak dirulaguntza puntuazio hurrenkerako hurrengo proiektu edo jarduketegi esleitzea erabaki ahalko du, beste deialdi baten premiarik gabe, baldin eta onuradunak uko egiteagatik nahikoa kreditu geratu bada ezetsitako eskaeretako bati behintzat aurre egiteko.

### **14. artikulua. Esleitutako dirulaguntzak ordaindu eta justifikatzea**

1. Gastuak zuzen zerrendatu eta justifikatutakoan ordainduko da dirulaguntza.

2. Esku hartzeari ekitea premiazkoa delako harekin nahitaez hasi behar bada, eta Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak txostena egin ondoren, emandako dirulaguntzaren ehuneko 40, gehienez, ordaindu ahal izango da alde zuzenetik edo kontura, aplikagarri den foru araudian jasotakoarekin bat etorrira.

3. Gainerakoa, berriz, egindako gastuak behar bezala zerrendatu eta justifikatu ondoren ordainduko da, dena batera, aurreko paragrafoan aipatutako "aurrerakina" kenduz. Guztirako gastuak justifikatzeko agiriak 2022ko abenduaren 30a baino lehen (egun horretan barne) aurkeztu beharko dira.

4. Dirulaguntzen onuradunek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte 2022ko abenduaren 30a baino lehen:

4.1. Diruz lagundutako inbertsioak edo inbertsioek eragindako gastuak justifikatu beharko dira, behar bezala zerrendatuta. Diruz lagundutako aurrekontuaren zenbateko osoa adina diruz lagundutakoek, gastua justifikatzen duten fakturak edo beste egiaztagiri batzuk aurkeztuko dituzte.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Jaulkitzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.



– Data.

– Fakturaren zenbakia

Halaber, ez dira onartuko justifikazio gastu gisa PFEZaren konturako atxikipenen gaineko zerga araudia betetzen ez duten fakturak edo ordainagiriak.(PFEZa edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga).

4.2. Diruz lagundutako inbertsioaren edo inbertsioen diru sarrera eta gastuen balantzea.

4.3. Diruz lagundutako inbertsioaren edo inbertsioen memoria. Nahikoa den informazio grafiko eta idatzia jaso beharko du, eta egindako esku hartzea argi deskribatu beharko du.

4.4. Eskatutako hiru aurrekontuak, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 29.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, zeinean ezarrita baitago ezen, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak gainditzen baditu sektore publikoko kontratuak arautzen dituzten araudietan kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak (40.000,00 euro obra kontratuetan, 15.000,00 euro zerbitzu edo hornidura kontratuetan), onuradunak gutxienez hiru eskaintza aurkeztu beharko dituela, hornitzaile banarenak, konpromisoa kontratatu baino lehenago. Aurkeztutako eskaintzak azaldu beharko dira. Horietako bat aukeratzea eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz egingo da eta, aukeratutako eskaintza diru aldetik hoberena ez denean, egindako aukera espresuki arrazoitu beharko da memoria batean.

4.5. 500 eurotik gorako fakturak ordaindu direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

Honako hauek onartuko dira ordainagiri gisa:

– Bankuko egiaztagiria, non zehaztuko baitira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketa-  
ren edo transferentziaren onuraduna.

– Fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

– Posta arruntez jasotako banku laburpenak.

– Kontu korronteen libreten kopia, mugimenduak ageri dituenak.

– Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak.

– Erosketa tiketak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza zentro eta autobideetakoak, bidaia txartelak eta abar). edo fakturak, enpresa jaulkitzaileak jarritako zigiluarekin, adieraziz ordainduta daudela.

Dirulaguntzak justifikatzean baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan xedatutakoarekin bat etorritik, faktura elektronikoak gastuak justifikatzeko erabili ahal izango dira.

Halaber, faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarren arabera izan beharko da haien formatua. Elektronikoki izenpetutako beste zernahi agiri aurkeztu behar izanez gero, onartu egingo dira konfiantzazko zerbitzu elektroniko kualifikatuen eskaintzaileen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak <http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>.

